

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2024ko uztailaren 17ko erabakiaren laburpena, zeinak jasotzen baitu garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko udal laguntzen 2024ko deialdia

BDNS (Identif.): 777350.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/con-vocatoria/777350>.

Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetzak ekintzak batera finantzatzeko laguntzak ematea, ekintza horiek Donemiliagako udalerriaren ekimenez elkartasun harremanak indartzen laguntzen badute eta 2024ko urtariletik abendura bitartean garatzen badira.

Diruz lagundu ahal izango dira 2024ko urtariletik abendura egiten diren garapenerako lankidetzak proiektuak.

Proiektuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

— Garapen bidean dauden herrialdeetako herritarrei garatzen laguntzeko eta Donemiliagak dituen elkartasun harremanak sendotzeko garapenerako lankidetzak proiektuak, irabazteko xederik gabeko garapenerako gobernu kanpoko erakundeek edota pertsona fisikoek nahiz juridikoek sustatutakoak.

— Erakunde eskatzaileek beren helburuen artean honako hauek izan behar dituzte: garapenerako lankidetzak jarduerak egitea, irabazteko xederik eza eta emandako diru sarrera guztiak garapenerako lankidetzak jardueretan eta gizarte ekintzetan erabiltzea.

Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko gobernu kanpoko erakundeek eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Donemiliagako herriarekin zerikusi zuzena duten bazkideak edo laguntzaileak badituzte eta deialdi honen xedearekin bat datozen proiektuak garatzen ari badira.

Deialdi honetatik berriaz baztertzen dira honako hauek:

— Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren eta Foru Aldundiaren menpeko erakundeak eta zerbitzuak, eta aurrezki entitateak. Salbuespena: ikastetxeak ez dira baztertzen.

— Enpresak eta irabazteko xedea duten bestelako erakunde guztiak.

— 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera onuradun izatea debekatuta duten entitateak.

— Emakume eta gizonak berdintasunean aritzea edota parte hartzea galarazten duten erakundeak, honako hauek izan ezik: sexu bereko kideez osatuta egonda ere, helburu nagusitzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen eta gizonen interes eta beharrian espezifikoak sustatzea duten erakundeak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako udalbatzak 2024ko uztailaren 17an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hauxe da: 231.481.005. Partida horren zuzkidura, gehienez, 8.571,36 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu ondoko egunetik 2024ko irailaren 13ra arte, 14:00ak arte.

Erdoña, 2024ko uztailaren 24a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO